

Drogaz akabatu nahi digute gaztedia

Deia, 1983-08-05.

Adi ezazu, ez da aspaldi gure artean zebilen susmoa bakarrik; ba da zehatzagorik!

Juan Ignacio Andres Ituñok Bilboko 3en Instrukzio Auzitegian egin dituen deklarazioak: "Polizia heroína partitzen ari da informazio truke". Eta esandakoa ez da galdu. 123/82 sumarioan idatzia geratu da. lehen estadistika bidez genekiena da: bost urte ba da heroinaren trafikoa eta usuarioa bera ere Estatuan gainontzeko herrialdeetan ez bezala ari zela gehitzen Euskalerrian; oraindik harrigarriagoa: Euskalerria zen drogazale gutxien harrapatzen zena; eta oraindik zifra bidez emandako beste datu objektibo bat: Bilbon eta Donostian *heroína* gramo bakoitzak 16.000-20.000 pezeta balio du, eta Espainiako alderdietan 25.000.

Gurean ikastola, Unibertsitatea edo haragia merkeago balitz, onuragarri litzateke, baina zer dela eta droga?!

Galderak berez sortzen dira: Nork hedatzen du, orduan, droga hemen efizientzia honekin?; zergatik egiten du Euskadin poliziak ezikusi nabarmen hau?; zergatik gertatzen da gure etxean droga hain merke eta ugari?! Eta politika arazoak bizien dauden puntuetan: Errenterian, Bermeon, Ondarrun eta Hernanin dira gazteak heroína aisen darabilten herriak.

Gaur milagroak ez dira berez gertatzen!

Diario 16, eskandaloetan ohituena dagoen egunkaria, da orain gaia aztertzen hasi dena.

Salaketa gorriak egin ditu: Iñaki Ituño berak kondatu dionez, joan den urteko urriaren 29an, honek ikusi zuen nola Bilboko Polizia Burutza Nagusitik Palazuelo izeneko bere lagun batek behar gorrian zegoen heroína atera zuen: "Neuk ez nion galdetu, baina garbi dago heroína hori informazioaren truke eman ziotela", esan du, eta oraindik konkretoagoa den salaketa: "Garbi dagoena zera da: gazteak alderdi politikoetan sar ez daitezten ekarri dutela honera heroína, herri honetan kontzientzia politikorik sor ez dadin".

Eta salaketa zuzena egin du Euskal Jaurlaritzan gai honetaz arduratzen den taldearen zuzendariak, Xabier Azpiri sendagileak: "Euskadi suntsitu nahi digute, eta droga da hau lortzeko bide bat".

Hau ere Plan ZEN deritzanaren tarteko da, nonbait.

Ez ziguten gezurra esan herria txibatoz beteko zigutela adierazi zigutenean. Baina ni ez naiz horietaz harritzen. Zera ezin dut nik, neuk, ulertu: PSEn oraindik euskaldunik geratzen bada, zer diote honetaz eta beste?!

Non dira garai batean Eibarrekoen antzeko nortasuna zuten PSOEko sozialista euskaldunak?!